

Tolosaldeak

Tolosa eta Uztaritzeko 100 gazte elkarlanean arituko dira

DATORREN ASTEAN TOLOSAKO HIRU IKASTETXEK BAT EGINGO DUTE SAINT JOSEPH IKASTOLAKO 25 IKASLEREKIN BATERA MEMORIA HISTORIKOAREN INGURUKO TAILERREAN

☞ Ane Sanzen erreportajea eta argazkia

Apiriaren 28 eta 29 bitartean Uztaritzeko Saint Joseph ikastolako 25 ikasle izango dira Tolosan, bi herrien artean memoria historikoaren inguruan antolatutako tailerrean parte hartuko. Tolosako hiru ikastetxek egin dute Tolosako udalak eta Aranzadik proposatutako proiektuarekin bat; Hirukide, Orixte eta Laskorain ikastolek. Bakoitzetik 25 ikasle batuko dira jardunaldietera, beraz, 100 gazte ariko dira bi eguzek elkarlanean. Ikasleek memoria historikoak gizarte demokratiko baten sorkuntzan duen garrantzia ondortzotzea da tailerrean helburua. Hone-tarako, XX. mendean izandako gerretan, Gipuzkoan zein Lapurdin, giza eskubideen urraketak sufritu zituzten Uztaritze zein Tolosa inguruko gizabanakoci buruzko informazio iturriak taldean analizatuko dituzte zenbait dinamizaz baliatuz. Mikel Errazkin Aranzadiko kide eta tailerren kudeaketaren ardura-dunak, proiektua definitzeko memo-ria historikoa autoaren atzerko ispi-lu batekin alderatu zuen. "Aurrera goaz atzekoa begibistatik galdu gabe, aurrera egiteko ere beharrezkoa dugulako", azaldu zuen. Iparraldeko gazteak ostegunean, apirilak 28, 15.00ak aldera iritsiko dira Tolosako kultur etxera. Launa-kako taldeak osatuko dira, zentru bakoitzeko bana, eta arratsaldean zehar elkar ezagutzeko hainbat dinamika egingo dituzte. Eguna amaitzean, Saint Josephko ikasleak tolosarren etxeetan geratuko dira lotan.



Proiektuaren kudeatzaile eta parte-hartzaileen ordezkarriak, atzoko prentsaurrekoan.

Ostiralean goizean goiz ekingo diote lanari. Talde bakoitzari personal historiko bat esleitu zako, eta informazio hainbat euskarri erabiliz eguerdira arte poster bana prestatuko dute, ondoren, gainontzeko ikasleei egindako aurikuntza eta hausnarketak azaldu ahal izateko.

"Memoria historikoa autoaren atzerako ispilua bezala da. Aurrera goaz aitzekoa begibistatik galdu gabe" Errazkinen hitzetan

ONDO PASATZERA Baina ez da guz-tia lana izango gazte hautentzat. Kalejiran ere arituko dira, Tolosako Zerkausian lagumartean bazkaltzeko aukera izango dute etxetik eraman-dako bokadiloekin, eta elkartruketa amaitzeko, Oria ibaian arraunketa saioa egingo dute.

Odol ateratzea, gaur Amezketako kultur etxean arratsaldean

DEIALDIA - Gaur arratsaldeko 18.30etik 20.30era bitartean odola ateratzeko aukera izango dute bertara gerturatzen diren herritarrek Amezketako kultur etxeko aretoan. Udaletxetik gogorarazi nahi dute deialdia guztiz irekia dela. Jada odol-emaile direnak eta orain arte inoiz eman ez dutenak izango dute aukera bertara-tuz gero. -A.S.

Villabonako Baikara guraso topaketan izen emateko azken eguna

IKASTAROA - Villabonako Baikara guraso elkarrekin maiatzaren 2, 9 eta 16rako antolatu dituen ikastaroetan parte hartu nahál izanez gero izen emateko azken eguna da gaur. Topaketa bi talde-tan banatuko da, bata euskaraz, Subijana etxeko areto nagusian, eta bestea gaztelaniaz, uda-letzeko Balio Anitzeko aretoan. Bi dira ere aukeratu diren gaiak: *Nortasunaren garapena* eta *Kultur artean elkar bizi*. Interesatuak Villabonako Udaletxeko Zerbitzu Sozialetan apuntatu daitezke, edota 943 693 925 zenbakira deituz. -A.S.

Ibarrako abuztuko sanbartolomeak antolatuko deialdia

FESTAK - Datorren ostegunean, apirilak 21, iluntzeko 19.30ean udaletzeko batzar aretoan, abuztuaren 23tik 28ra bitartean izan-godiren sanbartolomeak antolatzen jarraitzeko asmoz, Festa Batzordearen bilkura egingo dute. Parte-hartzea sustatzearren Ibarrako talde, elkarte, eragile eta herritarrei bertaratzeko gonbita egiten die Festa Batzordeak. -A.S.

Zizurkilgo Oporretan Euskaraz udalekuak, sei begiraleren bila

UDALEKUAK - Udarà honetarako begirale bila dabilza Zizurkilgen Oporretan Euskaraz udalekueta-rako. Apirilaren 22ra arteko epea izango dute hautagaiek Aurrera-ko udal-bulegoetan izena emateko. Sei begirale kontratatuko dira, ekainaren 27tik uztailearen 22ra bitartean lan egiteko. Deial-dian parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da Zizurkilgen errol-datua egotea, 18 urte izatea, euskara ondo menderatzea eta talde dinamika gaitztea. Informazio gehiagorako eta izena emateko Aurrera Plazako Udál Bulegora joan daitezke, edo 943 692 495 telefonora goizez deitu dezakete. -A.S.

Loatzoko igoera-jaitsieraren XXIV. lasterketa izango da igandean Amasan

Irteera Uxo-Toki elkartearen izango da goizeko 10.30ean, eta izen ematea egunean bertan toki berean 9.00etan

AMASA - Igande honetarako, hila-ren 24a, Loatzoko igoera-jaitsiera antolatu dute Amasako Martina Kultur Elkarteko gazteek eta Uxo-Toki elkarteak. Aurtengoa XXIV. edizioa izango da eta irteera 10.30e-rako dago aurreikusia Uxo Toki

elkartetik. Korrikalari bakoitzak Loatzora igo eta berriro irteera tokira itzuli beharko du, guztira 9,73 kilometrotako ibilbidea egi-nez. Amasako plaza 90 metrotan dago eta Loatzoko gaina 631 metro-tan, baina antolakuntzatik argi utzi nahi dute jaitsiera arreskurik gabekoa dela. Parte hartu nahi dutenek egu-nean bertan izena eman behar dute, goizeko 9.00etatik aurrera Uxo-Toki elkartearen bertan, doan. Lehenengo sailkatuek saria izango

dute, bai gizonen eta baita emakumezkoen kategorian ere. Lehen postuentzat 120 euro eta txapela, bigarrenentzat 80 euro eta hirugarrenentzat, 50 euro. Sari banaketan parte-hartzaile guztien artean txuleta, arkumea eta abar zozketatuko dira. Hamaiketakoa ere eskainiko dute Loatzen bertar-ati nahi duenarentzat.

GPS ORIENTAZIO IKASTAROA Eskae-ra handia zela eta, Uzturre Alpino Klubak beste behin mendian GPS

bidezko orientazioaren inguruko kursio bat antolatu du maiatzera-ko. Hirugarrenez eskainiko den ikastaro hau hiru klase teorikok eta ariketa praktikoko batek osatuko dute.

Teoria maiatzaren 2, 4 eta 5ean emango da 19.00etan, eta prakti-kak maiatzaren 7an goizez egingo dira, larunbata dela eta. Informa-zio gehiagorako edota izen ema-teko 943 652 789 telefonora deitu edo email bat bidali info@alpi-nouzturre.eus helbidera. -A.S.

«Tolosan neukan Jauna hemen ere badaukat»

CLAUDIO BERROETA
AZKEN APAIZA

Claudio Barroeta (Igorre, Bizkaia, 1922) klaratarrak 34 urte egin zituen Tolosako Korazonistetan. Besteak beste, Poxpolin ikastolako sortzailea eta zuzendaria izan zen. Eliza eta komentua itxi zenean, bera izan zen ateratzen azkena. Gaur egun Aguiraingo Klaratarren egoitzan bizi da.

Noiz etorri zinen Tolosara eta noiz arte egon zinen?

Hiru egonaldi egin ditut Tolosan. Lehenbizikoa 1953tik 1958ra, bigarrena 1974tik 1997ra, Poxpolin ikastolako zuzendari, eta hirugarrena 1997tik 2003ra, elizako arduradun bezala. Beraz guztira 34 urte.

Nola bururatu zitzaizun Poxpolin ikastola sortzea?

Poxpolin izena Angelatxo Arrue emakume ezagun ospetsuak argitu zidan. Emakume Abertzaleen lehendakaria zen, Iparraldera erbesteratu zen. Bere osaba Patrizio Orkaiztegi Tolosako parrokoa izan zen eta bere bitartez etorri ziren Tolosara korazonistak, Iruhean deitzen zitzaizela bezala, ez klaratarrak. Klaret santua gure sortzailearen antzera lan egin nahilak ere eragin zuen sorreran.

Eta zergatik sortu zenuen?

Euskarari indarra emateko. Erdaldun asko etortzen zelako kan-



potik Tolosara bizitzera. Ikasle gehienak euskaldunak ziren eta haien artean erraz euskalduntzen ziren. Gurasoek, euskara ez jakin arren, euskararenganako maitasuna erakutsi behar zieten. **Zein ziren ikastolako buruhauste nagusienak?**

Andereño-irakasle egokiak eta euskaldunak aurkitzea eta andereño-lana ordaintzeko txanponak biltzea. Angelatxo Arruekilatu zidan lehen irakaslea, Joxepi Agirrezabala. Asko lagundu zidan ikastola sortzen. Denak ondo portatu ziren beti.

Klaseez gain, zer egiten zenuen?

Ikastolako haur guztiei D ereduko euskara herrikola eskaini, Gabonetan kaleetan jaiotzaren kan-

tuak abestu, Errege Eguna ospatu ikastolan, Olentzerori kalean ibilian abestu, Inauterietako kanta eta jantzi bereziak erabili, maiatzeko larunbatetan lore sorta eta bertso bereziak eskaini Ama Birjinari, urtean zehar irteerak antolatu Gipuzkoako hainbat herri eta tokitara, ikasturtea burutu ekitaldi ugariaren artean futbol lehiaketa eratu...

Nola eta zergatik itxizien?

Herrian jaioberria gutxitu heinean, Poxpolin ikastolarako eskariak murriztuta, eta baita goi mailako ikasketak hedatu ezinagatik.

Nola gogoratzen dituzu Korazonisten elizako azken urteak?

Ni gelditu nintzen azkena. Mezak ematen nituen. Nagusiek ere ez zekiten zer egin. Han zeuden gauza batzuk banatu egin nituen, adibidez sarreran zegoen San Antonioren irudia frantziskotarrei eman nien. Aulkiak Donostian eraikitzen ari ziren eliza bati eman nahi nizkion, baina bila etorri zirenean sitsak janda zeudela ikusi genuen. Beirateak oso onak ziren, Frantzian egindakoak. Ez dakit non egongo diren. Organoa berrituta zegoen eta teklatura primeran jarri zuten.

Pena hartu al zenuen Tolosa uztean?

Han neukan Jauna hemen ere badaukat.



Ordezkaritza politikoa eta hezkuntza arlokoek taileraren berri eman zuten. ATARIA

Memoria historikoa bidelagun, ikasleak batuta

Tolosa eta Uztaritzeko senidetzearen barruan bi herrietako ikasleek memoria historikoa landuko dute tailer bidez, datorren astean Tolosan

Erredakzioa

1989. urtean eman ziren Tolosa eta Uztaritze herriak senidetzeko lehen pausoak. Izan ere, bi herriek bazituzten amankomunean hainbat ezaugarri: hiri nagusi historikoak, euskaldunak eta inauteri aberatsen jabeak.

Gauzak honela, eta senidetze horretan sakondu asmoz, datorren apirilaren 28 eta 29an Tolosako kultur etxean elkartuko dira bi herrietako ikasleak, euren bizitokien historia zehatzagoa izan asmoz: «XX. mendeko gerratan, giza eskubideen urraketak sufritu zituzten Uztaritze zeln Tolosako gizabanakoel buruzko informazio iturriak talde-

an analizatuko dituzte ikasleek dinamika ezberdinak baitatuz».

Lan hori kudeatzeaz Aranzadi elkarte arduratuko da eta bertako kide Mikel Errazkinek ikasleekin gaia lantzearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen: «Memoria historikoa autoan atzerako ispilu baten erakoa da, aurrera begira goaz atzeko begi batiari galdutako gabe, eta hori da ikasleekin, gure herrien etorkizuna direnekin, landu nahi duguna».

Amaia Anduezak Uztaritzeko lizeoko euskara irakasleak bere aldetik tailerak euskaraz izatea azpimarratu zuen, «Uztaritzeko ikasle gehienek ez baitute euskal ingurunea euskaraz jarduteko».



gurasoek parte hartze handia zuten», azaldu dute. Urtero egiten zituzten festak, Bilalidiak Uzturre-ra, asteburu pasak Leitzaiko baserrian... alpatzen dituzte. «Alta Barroetak asko laguntzen zigun. Beti zegoen haurrekin jolasten edo

futbolekin entrenatzen», diote. Apaiz euskaltzale eta bertsozale bezala gogoratzen dute. Donostian dagoen Mariaren Bihotza Ikastolarekin harremana zuten.

Sel urte beteta, haurrak herriko beste ikastetxetara joaten ziren

Oinarriko Hezkuntza egitera. Denborarekin, ikastetxeak ikasle gero eta adinez bidaiagoak hartzen hasi zirenean, Poxpolingo ikasleria gutxitzen joan zen pixkanaka eta 1997. urtean ikastola itxi egin zen behin betiko.

Topatu behar duzuna!

tzq
tolosaldeko Zerbitzu Gdo

Eskualdeko zerbitzuak

www.ataria.info